

EUSKAL NAZIONAREN ALDE ETA KONTRA

JOXE AZURMENDI

BI printzipio dabilta mendez-mende burruan gure historian. Bi alderdi. Alderdi bata Euskal Herriaren nortasunari eusten dio: Euskal Herria norbera dela, bere buruaren jabe eta gain bere bakarrik dela, enpeintzen da. Egungo mintzairan esateko: Euzkadi nazio burujabe dela. Eta besteren mende badago, Foruak kentzen eta errenteri mugak batetik besteratzten eta soldaduzkara behartzen eta zergak berek nahi bezala kargatzen badizkio, indarrez eta bidegabez azpira dutelako bakarrik, darabilte horrela, esango du Alderdi honek. Eskubiderik ez dutela, konkistatoreren eskubideak izan ezik. Inork ez duela eskubiderik Euskal Herriaren agintzeko, Euskal Herriak berak baino.

Pasabide foralak adierazten zuen hori lehenago: Erregek emaniko aginduek hemen ez zuten balio, pasabide foralak bertarako baliozkotzat baitetsi arte. Beste modu batetan, "desnaturatzeo eskubideak" ere gauza bera adierazten zuten: "E como los vizcaínos tengán —idatzen zuten Moisés Diego de Valerán— antiguas leyes e costumbres, que puedan desnaturalarse del rey si atentare quebrantarlas..." Beraz, Errege batekin hasaratu, desnaturatu eta hor konpon eta beste batekin aliatu. Desnaturatzeo eskubide hau seriozto hartzen zutelako edo, gipuzkoar pikaro batzuek, Konbentzio Gerran, frantzes bihurtzea erabaki eta "el primer caso de separatismo político en la historia de la España moderna" muntatu omen zuten... Albaldetari, halare, ez zaio batere gustatzen Payneren interpretazio hau.

Aita Larramendik eraman du pentsabide hau azkeneko ondorioetaraino: "Qué razón hai para que la nación bascongada... para que esta nación privilegiada y del más noble origen, no sea nación aparte, nación de por sí, nación exenta e independiente de las demás?... Porqué tres Provincias en España (y no hablo ya del reino de Navarra) han de estar dependientes de Castilla, Guipúzcoa, Alaba y Bizcaya y otras tres dependientes de Francia, Labort, Zuberoa y Baja Navarra?".

Ez du inor harririk, Madril aldean beste printzipio batzuk hobesten eta erabiltzen zirela, esaten badugu. Errege autoritareren konzeptua guziz zorrotzu da bitartean, eta absolutismoak ezin konprentitu du, nola munduaren erdian bere gogara agintzen eta gobernatzen duen Botereak, eragozpenik izan dezakeen probintzia edo nazio eskasotan gobernatzeko.

Eta, egin ere, ahaletan egingo dira nazio edo probintziak Erregeren menpean "berdintzeko". "Malditos sean los hombres nacionales —hasarrazten zitzaigun Olivareskoa—, yo no soy nacional, que es cosa de muchachos". Orain, jende haundi eta

haundikia problema haundiez bakarrik arduratzen hasiko da, "probitzikeriak" haundikiro mespretxatuz. Inperio haundiko buruhauste haundiez kezkatzen dira haundiak: gorabehera "nazonalak", nazioen Foruak eta, Errege absolutuari buruz-buru

nolabait salbatu diren soberaniak (edo "partikularismoak"), tipikeria eta traba hutsak dira, "politika haundia" eragozpen gabe egiteko.

Filipe V-gnak, 1707-an, Aragoeko Foruak ezabatu zituenen, argi eta garbi jakinarazi zuen bere asmoa, "de reducir todos mis reinos a la uniformidad de unas mismas leyes, usos, costumbres y tribunales, gobernándos igualmente todos por las leyes de Castilla".

Berriz ere, xehetasun historikuek ez zaizkigu hemen axola. Printzipioa inporta zaigu: Euskal Herria nazio dela, naziorik ez dela. Ikus gorabeherak in J. de Aralar, **Los adverbios de la libertad vasca 1794-1829**.

Printzipioa simple-simplea da: ez dago "Espainia" beste naziorik; hots, Espainia inperiala egin duen Gaztela besterik. Euskadik oinarriak eta arrazioz ez duela, Aginpie zentralari ez erabat eta oso-osorik makurtzeko eta bere gobernu berezirik izateko. Eta ez du arrazioz, ez duelako, soberania edo burujabetasun berezia legitima lieziokean, nortasun apartekorik. Ez delako berarizko ezer. Euzkadike du nortasun propioz batiere; beraz, obeditu egin behar du beste denek bezalaxe.

Hori da arrazoiadaren ardatza, XVIII-gn mende bukaeran hasi eta oraintxe bertora arte: "jarraikituan historiku" esaten zaio horri, alajaina.

Euskal Herriaren nortasunik eza modu askotan "demostratu" dute Aginpie zentralaren apologistek, Llorentek eta. Gero gerokoke, Euskal Herria, hasteko, ez da inoiz beregain izan: zeren ta, Foruekin Euskal Herriak zeukan independentzia, Erregek emaniko pribilegioa bait zen. Inoren eskutiko pribilegioa justu independentziaren kontrarioa da.

Erregek, edo Godoyek nahiago baduzu, Foruak desegin nahi zituen. Eta desegin ahal izateko, berak eginak behar zituen.

Baina Foruen eraso ez da in-tutzgo eta legeren batzuen eraso soil: euskal soberania (erlatibua, noski) eta soberaniaren printzipioa atakatuko dira, atake sistimatiko batetan. Horregatik, Euskal Herriak herri edo nazio nortasunik ere deus ez duela, erakutsi nahiko digute Erregeren Akademikuek. Interesgarriena, behar bada, euskara nola deskalfikatu diguten: euskara ez da hizkuntza partikularrik (eta Euskal Herria ere ez, hortakoz); Espainian eta Frantziaren historian zehar mintzatu izan diren mintzairan nahaspita da euskara (kelta, greko, normano, hebraiera, gota, arabe, latin, gaztelania eta frantzes). "El bascuence es un mosaico de lenguas bárraras, introducido probablemente a mediados del siglo VIII por los bascongados para figurar total independencia del extranjero". Garbi ez badago, hona hemen garbiago: "los sonidos simples del bascuence son los mismos que en castellano... no hay motivo razonable para asentar que los

bascongados no tomaron de los otros españoles o pueblos tales sonidos".

Konklusioa erraza da: Foruak pribilegio dira, euskara ez da hizkuntza partikularrik, euskal naziorik ez dago. Nola egongo da, orduan, euskal soberaniaren arrazioz? Beste guzti legerari makurtzea daukate. Historiari bagazokio, Espainietako herri ala herrialde guzien "berdintasunaren" kontua, ez da, batzuek sinestarazi nahi dugutenez, ideia demokratikuen ondorio bezala sortu eta zabaldu. Xit alderantziz: ideia absolutisten ondorio bezala sortu da. Jaun absolutuaren menpean denak berdin "pean" dagoz. Ez da eskubide berdintasuna; eskubidegabeziaren berdintasuna da.

Arrazoi bortitzokin harmaturik, intelektualitate liberal espainolak, XIX-gn mendea zehar, ez du nazionalitateon aipamenik entzun ere nahiko. Honez gero dogma finki finkatua da, nazio bakarra Espainia dela.

Cadizko Konstituzioak probintzia eta eskualdeen partiketa egokiagoa egin nahi zuen, administrazioerako, eta Espainia berria nazionalitateei zertarako begiratu gabe nahi zuen antolatu. Laster altxatu ziren protes-

tak, puskatu nahi ziren nazio lurralde otatik: Katalunia, Euzkadi, etab, errespetatu beharra zegoela. Jakobinismo espainolak Muñoz Torroeren ahotik protesta denak arbiatu zituen: "Estamos hablando como si la nación española no fuera una, sino que tuvierá reinos y estados diferentes"... Kito. Ez dago nazio espainola besterik.

Behin, geroago, Pedro Egaña euskal diputatu liberalak Madrildi Gortean euskal nazioa aipatu zuen polemika batetan Foruei buruz. Sekulako eskankalaoa sortu zen. Nolabait ere, Egañak eskusatu beharra izan zuen, hitz hori erabili zuelako, euskal "nazionalitate" alegia. Baina eskusak ez ziren aski, halako sakrilegioa berriz oneratzeko. Gobernu Burua bera argitasun hau ematera obligaturik sentitu zuen: "el Gobierno no conoce más que la nacionalidad española... otra nacionalidad, cualquiera que sea la forma en que se presente, el Gobierno la rechaza".

Orain badakigu: nazionalitate nortan deno zer den eta nazionalitateak nortu diren, guziz guzi-jakitun, Gobernuak erabakitzen du. Eta Gobernuak ez du nazionalitate espainola besterik ezagutzen. Besteek, izatea daukate nahi dutena; baina ez nazio. Beraz, probintzia izan beharko dute.

Hau, ikusiko dugu.

EGUNEKOA

Euskal Herriango ala Euskal Unibertsitatea

Unibertsitate euskaldun bat nahi dugu Euzkadin.

Nahi dugu, behar dugulako. Eta ez bihar, bihar beranduo baita. **Gaurko** nahi dugu, beraz, Euskal Unibertsitate bat.

Baina nahi dena ez da beti lor ahal izaten, eta honelakotan ahal denaren bila joatea ez da zentzugabekeria bat.

Ez beti, behintzat.

Azalduko dut arazo hau ahal dugun argien.

Gai hontaz arduratzen diren euskaldun batzuk **Euskal Unibertsitate** baten alde ari dira lanean; eta beste batzuk, **Euskal Herriango Unibertsitate** baten alde.

Carlos Santamaria eta Koldo Mitxelena ondo argitu duten bezala, hizkuntza arazo bat dute: Euskal Unibertsitatea euskera hutsean izango litzakena da, eta bestea, berriz, gure herriaren zerbitzu eta euskerak irakaskuntza eta ikaskuntzan toki eroso izango badu ere, lehenengotik euskera hutsean izango ez litzakena.

Baina, zergatik ez biak?

Euskaltzale denak nahi dugu Euskal Unibertsitate bat. Ikastola-tik hasi eta gorantz egiten abiatu den bidea Unibertsitateraino iritsaraztea da gure herriaren ametsa. Eta ametsa, mamituko da. Baina hontara iritsi arte gauza asko behar ditugu bideko: diruz egitekoak diranez gainera, irakasleak, txetxoak eta euskera hutsean klaseak jarraitzeko gai diren irakasleak. Hau etorriko da; baina, eta etorriko bada, derrigorrezko da hontarako lanean gaur bertan hastea.

Hontan, pozgarria da orain lanean den UZEI (Unibertsitate Zerbizurako Euskal Ikastetxea) asmo honen lehen pausoak ematen ikustea.

Baina orain ereiten hasi diren aza-honek hartuko du ernerera eta hazkunderako behar duen denbora. Bitarte hontan, ezin ditugu Unibertsitateak gure herriari gaur planteatzen dituen arazoak baztertua utzi.

Bitartean, Euskal Unibertsitatea sortze-lan hontan ari den bitartean, zerbaitekin ginezake Euskal Herriko Unibertsitate baten alde.

Ematen du, gainera, hontarako momenturik egokienean gaudela.

CARTAS AL DIRECTOR

percatándose de lo que nos viene encima (la foto de Ruiz de Azua en DEIA de esta misma fecha es brutalmente expresiva) y las consecuencias tremendamente negativas que para el medio ambiente acarrearán, indefectiblemente, la finalización de las obras del Superpuerto, buscan instalarse en zonas más saludables.

Hasta ahora, y siguiendo con el triunfalismo que durante tantos lustros ha sido la tónica de comunicación entre la Administración y el sufrido pueblo, no han querido mostrarnos más que el lado "rosado" del problema. El tan cacareado Superpuerto que según los técnicos colocará a Bilbao a la cabeza de los europeos con los beneficios de toda índole que presuntamente aportará a la economía de

Euzkadi y por ende a la maltrecha economía española conllevará, como contrapartida, la destrucción total de la ecología marina del área, el cierre por imperativos de sanidad de todas las playas y la ruina de los antes bellos puertecillos de Ciérvana y Algorta, privando a los económicamente débiles de los únicos "bañerios" a nuestro alcance y, lo que es peor; convertirá indefectiblemente la ría y el Abra en un inmenso estercero, y ello por la razón siguiente: Si con una compuerta (bocana del viejo rompeolas) la situación en lo que a inundaciones se refiere es catastrófica, ¿qué será cuando el cierre del puerto se haga con dos?

Le saluda atentamente,

KOLDO ARALUCE, GAMINDE

Euzkadiko herriari zerbitzeko biderik egoki eta azkarrena izango litzateke hau.

Mitxelena ondo dionez, euskaldunoi ez zaigu Estatu-gandik datorrena ezer gustatzen. Baina behar ditugu aukerako ditugun ibilbideak hartu, gureganatu, eta geok ibiltzen asi.

Batez ere, Euzkadi-ren azpi-egiturak osatzeko bide badira

MARTIN UGALDE